BEÑAT ETXEPARE

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKI ARETOA
SALA DE TEATRO PARA NIÑOS/AS Y JÓVENES

GIDA DIDAKTIKOA
Martinaren parke fantastikoa

(Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako ikuskizuna)

Antolatzailea / Organiza

Teatro PARAISO Antzerkia

Babesleak / Patrocinan

TEATRO ANTZOKIA PRINCIPAL VITORIA-GASTEIZ

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Dirulaguntza / Subvencionan

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Interreg POCTEFA MIGAP

Vital FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Laguntzaileak / Colaboran

EL CORREO PARTE DE TI ZURE BAITAN

eitb

Casa del Libro

teklak

Bazkidea / Asociada a

BIARGI SAREA

1.- HITZAURREA

Unitate didaktiko honek irakasleei helarazi nahi die *"Martinaren parke fantastikoa"* ikuskizunari buruzko behar adina informazio, ikuskizuna ikasgelan jorratzeko aukera izan dezaten eta, ondorioz, ikasleek antzezlana hobe ulertu eta gehiago goza dezaten.

Garrantzitsua da ikasleei unitate dibertigarri eta aberatsa aurkeztea, arte dramatikoak eskaintzen dituen aukera guztiak azpimarratzen dituena. Antzerkia lagunekin batera gozatzeko medio gisa. Eta berdintasunaren, elkartasunaren eta genero-rolen moduko kontzeptuak hobe ulertzeko eta lantzeko tresna gisa.

Komunikabideak eta teknologia berriak nagusi diren mundu honetan, haurtzaroa euskarri elektronikoz bete da eta euskarri horiek aukeraz beteriko mundu bat irekitzen dute (jolasak, serieak, pelikulak), baina gizakion arteko kontaktua ere pixkanaka urruntzen dituzte. Testuinguru horretan, antzerkia aurkezten zaigu antzezleen eta publikoaren artean elkarrekiko akordio bat ezartzen duen milaka urteko komunikabide-erritu gisa, fede-aitor bat, non antzezpena komunikazioaren gako bihurtzen den eta publikoa komunikazio-egitaterako ezinbestekoa den.

Antzerkia gure bizitzaren zati garrantzitsua da, jatorrizko 3D-ra itzultzea. Arauak errespetatzen, gure sentipenak ezagutzen, egoerak ulertzen, gure burua besteen tokian jartzen eta, azken finean, bizitzen irakasten digu antzerkiak.

Gaur egun, ordenagailu, tablet edo telefonoekin, "zuzeneko" komunikazioa galdu dugu, mundua errazago eta azkarrago ikusten baitugu pantaila baten bitartez. Horregatik hain zuzen ere, antzerkiaren esperientziak toki eta momentu berean bildu nahi ditu hainbat banako, komuneko erritu batean.

Antzerkia jarduera artistikoen garapena sustatzen duen jarduera motibatzailea da. Antzerki-proposamenak ikasleen interesetara egokitu behar dira, eta baita ikasleen garapen motor, afektibo, sozial eta intelektualera ere.

Unitate didaktiko honetan planteatzen diren ariketek antzerkiak eskaintzen dituen aukera paregabeak ikasleen aurrean aurkezteko balioko dute, harremanetarako, ikaskuntzarako eta gozamenerako tresna baita antzerkia.

Hezkuntza-etapa honen bereizgarria den planteamendu globalizatzailea kontuan hartuta, antzerkiaren jolasa ikasleen garapen fisiko, psikiko eta sozial egoki baterako gomendatzen den jardueretako bat da.

ELKARREKIN JOSTATUKO GARA?
IKUSKIZUNERAKO PRESTAKETA

Ikasgelan eta programaren material pedagogikoak abiapuntu hartuta, hezitzaileek burutzeko proposamena.

Antzezlan bat gai zehatz baten bitartez bideratu daitekeen arren, garrantzitsua da ez ahaztea beste galdera askoren sortzaile eta gai desberdinen iturri ere izan daitekeela, momentu bakoitzean eskolan lan egitea interesatzen zaigunaren arabera eskuratu ditzakegunak..

Oraingo honetan **ikasgela ikerketarako espazio txiki/handi bilakatu nahi dugu,** elkarrekin esperientzia artistiko garrantzitsu bat bizi dezagun.

Unitate honekin batera, objektu bat entregatuko dizuegu, saioen garapenerako lagungarria izango zaizuena. Objektu hori album bat da eta, orrialdeak hutsik izan arren, honako materialak dakartza:

1. 1. Ikasleei zuzendutako Teatro Paraíso konpainiaren gutuna, non esperientzia artistiko batean parte hartzeko gonbidapena luzatzen zaien, oraingo honetan "El fantástico parque de Martina" ikuskizunaren inguruan.

1. 2. Ikuskizunaren hainbat argazki.

1. 3. Antzezlanaren sinopsia, antzerkira etortzeko sarrerekin batera.

1. 4. ANTZOKIRA ETORTZEKO GONBIDAPENA

Egun batean, ustekabean, mahaiaren gainean album bat agertzen da. Album handia da, familia-argazkien albumen tankerakoa. Baina honek izenburu bat darama, *Diario de una experiencia artística*.

Albumaren izenburua komentatzen hasi zaitezkete: *Zer da arrarotasun-album bat? Zer aurkitu daiteke bere barruan? Nori gustatzen zaizkio arrarotasunak?*

Barruan, Teatro Paraíso konpainiaren mezu bat dakarren gutuna aurkituko dugu. Bertan, "El fantástico parque de Martina" ikuskizunaren inguruko antzerki-esperientzia interesgarri batean parte hartzera gonbidatzen gaituzte, Beñat Etxeparen ekimenaren 25. urteurrenarekin bat etorrita.

Ondoren, ipini arreta albumak dakarren bigarren materialari: ikuskizunaren argazkiak.

Dagoeneko eginak dauden taldeei (lau edo bosnaka) argazki bat banatu. Minutu batzuetan zehar talde bakoitzak argazkia begiratuko du eta irudiak iradokitako hitzetan pentsatuko du. Argazkiaren koloreei buruz hitz egiten duten hitzak, dauden lekua deskribatzen duten hitzak, agertzen diren pertsonaiek kontatzen ari diren istorioen hitzak, pertsonaien ezaugarriei buruzko hitzak (altuak edo baxuak diren, oinak handiak dituzten, aurpegi luzatuak...), haien arropei buruzkoak, nola sentitzen diren uste dugunei buruzko hitzak, zer soinu entzuten dituzten, zein garaietan gertatzen den argazkiaren momentua... Hitz solte guzti horiek argazkian idazten joango gara

Eta partekatu material horiek. Guztiok ikus ditzatela gainerako argazkiak edo entzun eta irakur ditzatela adiskideek idatzitako hitzak. Amaieran, "*Martinaren parke fantastikoa*" ikuskizunera hurbilduko zaituzteten hainbat irudi eta emozioren berri izango duzue



1. 5. IKUSLE IZATEKO PRESTATUKO GARA.

Gure haurrak ikuslearen eginkizunera hurbiltzeko dinamika bat proposatzen dizuegu.

HASIERA – Ikuslearen eginkizuna
Jokoa: TXALOA
Iraupena: 5 minutu
Deskribapena: ⇨ Denak, zutik borobilean. ⇨ Boluntarioa sartuko da. ⇨ 5 segundoko iraupeneko gauza bat esan edo egin behar du. ⇨ Gainontzeko taldekideek, modu eroan txalotuko du proposamena. ⇨ Boluntarioa, borobilera itzuliko da. ⇨ Beste boluntario batek hartuko du erdiguneko lekua eta berriz hasiko da jokoa. ⇨ AMAITZEKO TXALOTZE OROKOR ERRALDOIA
Jokoa: BOROBILA GURUTZATU
Iraupena: 5 minutu
Deskribapena: ⇨ Borobilean eserita ⇨ Irakasleak ikasleak zenbakituko ditu, 1, 2, 3. ⇨ Zenbaki guztiak zutik ⇨ Irakasleak zenbaki bat esanen du. Esandako zenbakiak borobila gurutzatu beharko du beste alderaino, eta eseri beharko du hutsune batean. ⇨ Gurutzatu bitartean, irakasleak hautatutako egoeran egonen balitz bezala jardun beharko du. (Ilargian, zintzilikatutako soka baten gainean…) ⇨ Egoerak aldatuko dira zenbakien aldaketarekin batera



KORAPILOA – Antzezleen eraldaketa
Jokoa: ANIMALIAK
Iraupena: 7 minutu
Deskribapena: ⇨ Parte hartzaile bakoitzak gelako txoko bat hautatu eta buruz behera entzan eginen da. ⇨ Animalia bat hautatu eta bere mugimendu fisikoak imitatzen saiatuko da. ⇨ Irakasleak animalia horretan bilaka daitezen eskatuko du. ⇨ Taldeko gidaria izendatuko du irakasleak. Gidariak mugimenduak proposatu beharko ditu. ⇨ Animalia ezberdinekin eta talde gidari ezberdinekin probatuko da.
Jokoa: ARGAZKIAK
Iraupena: 7 minutu
Deskribapena: ⇨ 3-4 kideetako taldetan banatuko gara. ⇨ Ipuin ezagun bana hautatuko du talde bakoitzak. ⇨ Talde bakoitzak 4 argazki prestatu beharko ditu. Gorputzekin egindako konposizioak, kontakizuna laburbilduko dutenak. ⇨ Talde bakoitzak besteei errepresentatuko dizkie argazkiak. ⇨ Beste taldeetako kideek, zein ipuin den asmatu beharko dute.
AMAIERA – Bizipenak barneratzea
Jokoa: DESKONEXIOA
Iraupena: 6 minutu
Deskribapena: ⇨ Begiak itxita etzan eginen dira ikasleak. ⇨ Saioan zehar egin diren ekintza jarduerak gogora ekarriko ditu irakasleak. ⇨ Etzanda ikasleak, adi entzungo dute. ⇨ Irakasleak, begiak irekitzeko eskatu, eta haien arnasa eta erlajazioan ohar daitezen eskatuko die. ⇨ Irakaslearen gidaritzapean, gutxika altxatuko dira, zorabioak ekiditzeko.

1. 6. IKUSKIZUNERA HURBILTZEKO BESTE BIDE BATZUK.

- ⇨ Arratsaldea haurrentzako parke batean ematea.
- ⇨ Bertan gertatzen dena behatzea.
- ⇨ Bertako biztanleak zeintzuk diren behatzea (ez bakarrik gizakiak).
- ⇨ Gaztetxoenekin burutzen ari diren jolasei buruz aritzea.
- ⇨ Nola jostatzen diren eta zer-nolako harremanak ezartzen dituzten behatzea.
- ⇨ Haiekin batera jostatzea.
- ⇨ Honen moduko parke batean kokatzen den antzezlan bat ikustera joango garela azaltzea.
- ⇨ Emanaldian zehar entzungo diren kantak ondorengo webguneetatik deskargatzea:
  www.produccionesmaestras.com
  www.teatrogayarre.com

2. IKASGELATIK ANTZOKIRA
LAN ESZENIKO BAT IKUSTEAREN ESPERIENTZIA.

Momentura arte bizitako esperientziei esker, ikasleak eta zu "El fantástico parque de Martina" ikuskizunaren sormen artistikoaz gozatzeko prest zaudeten ikusle bihurtu zarete. Albumean aurkituko duzue piezaren sinopsia, berriz ere irakur dezakezuena, antzokiko ateak irekiko dizkizueten sarrerekin batera.

PRODUCCIONES MAESTRAS

Egilea eta Zuzendaria: Ana Maestrojuán

Antzezleak: Iratxe G. Úriz, Ángel García Moneo, Oier Zúñiga

Ikusle osoarentzako antzezpen erakargarria da. Proposamen dibertigarria da, kolorez betekoa, non irudia proiekzioekin nahaste den irudia; musika, zuzenean abestutako jatorrizko kantekin; eta aktoreen antzezte lana.

Genero rolak haurtzaroan, norberaren eta besteen onarpena, enpatia eta elkartasuna bezalako baloreak lantzen dira. Adierazpide ludiko eta motibagarrian, muntaia dinamiko eta dibertigarrian.

Martina arratsaldero doa parkera jolastera.

Bere parkea munduko hoberena da, eta ez soilik mundukoa, Unibertso osoko hoberena ere!

Bertan lagunekin jolasten da, usoekin, kamioekin, jolasteari beldurra ez dioten helduekin ere.

Mundu berriak deskubritzen ditu parkean, ausarta izatea zer den eta nolakoa den beldurra izatea. Irudimenak mugarik ez duela deskubritzen du.

Abentura itzelak bizi ditu bere parkean. Txikiak eta handiak, bakarrik edota languduta, bizitzea baita abenturarik handiena.

3. PUNTU ETA JARRAI
OIHARTZUNAK IKASGELAN.

1.1. OIHARTZUNAK MUGIMENDUAN (15 MIN. G.G.B.)

Antzokira etorri ondoren, espazio bat sortu beharko duzue ikusi duzuenari buruz solas egiteko, eta ikuskizuna aurretiko jardueretan burututako lanarekin lotzeko. Hori egiteko, **oihartzunak mugimenduan** dinamika proposatzen dizuegu.

Dinamikaren azalpena:

Zutik, biribilean, gogora ekarri antzokian ikusi duzuen pieza.

Pertsona bakoitzak ikuskizuna gogorarazten duen mugimendu bat burutuko du. Eta taldeak mugimendu hori errepikatuko du (mugimendua antzezpenaren zein momentutan burutzen zen asmatzen saia gaitezke).

Bigarren txanda batean, pertsona bakoitzak mugimendu bat egingo du antzezlana ikusi bitartean sentitu zuena adierazteko, edo antzezlana gogorarazten dion emozioren bat islatzeko. Eta taldeak mugimenduak errepikatuko ditu.

Ondoren, biribila mantenduz eseri, bakoitzak aurkeztutako emozioei buruz hitz egiteko: emozio horiek sentitu al ditugu? Istorioaren zein momentutan sentitu gara horrela? Zergatik izan genuen sentipen hori? Zein momentu gustatu zaigu gehien? Eta gutxien?

* Baliagarri suertatzen bazaigu, albumean gordetako argazkiak erabil ditzakegu antzezlana eta pertsonaiak gogora ekartzeko.

1.2. ANTZERKIGINTZAREKIN JOSTATZEN

ANTZERKIGINTZAREKIN JOSTATZEN. Oztoporik gabeko espazioa, pilota **HASIERA**
Jokoa: KOLOREAK
Iraupena: 5 minutu
Deskribapena: ⇨ Talde handi batean antolatuta Taldeko batek izanen du txanda. Besteen aurrean paratu eta taldekide batek galdetuko dio: Zein kolore nahi duzu? Kolore bat esan beharko du eta taldekideak joanen dira kolore horretako zerbait ukitzera. Txanda duen kideak, besteetako norbait ukitu beharko du lehenago, honek txanda har dezan. bestela berberak segiko du jokoan.
KORAPILOA
Jokoa: ANTZERKIA
Iraupena: 10 minutu
Deskribapena: ⇨ 3-4 kideetako taldeetan banatu ⇨ Zuzendari bat, aktore printzipala eta bi errepartoko aktore hautatuko ditu irakasleak. kontuan hartu beharrekoa izanen da neskei garrantziazko lekuak ematea, zuzendaria izatea, adibidez. ⇨ Gaia emanen die irakasleak: Tenis partida, urte betetze bat... Zuzendariak errepresentazio txikia antolatu beharko du. ⇨ 3 minutu emanen dira antolatzeko. ⇨ Beste kideei aurkeztuko zaie lana.
Jokoa: ANTZERKIA II
Iraupena: 10 minutu
Deskribapena: Aurreko joko bera da. Oraingoan bi talde handi izanen dira soilik.

AMAIERA
Jokoa: HITZ EGIN DEZAGUN
Iraupena: 5 minutu
Deskribapena: ⇨ Lurrean eserita, azken jarduera honi buruzko galderak planteatuko dizkie. Haien erantzunetan identifikatuz, nola garatu eta berenganatu dituzten antzerkiaren rolak.

1.3. LANBIDEAK ETA ESTEREOTIPOAK

MATERIAL ETA ESPAZIOA: Espazio irekia **HASIERA**
Jokoa: NIK AHAL DUT
Iraupena: 7 minutu
⇨ Borobilean jarriko da taldea. ⇨ Jokoaren gakoa argia da: "Nik ahal dut" ⇨ Parte hartzaile bat erdira atera eta "Nik... kantatu, hegan egin,... ahal dut" esanen du. Esaten duen bitartean, mimikaz edo keinuz ekintza bera eginen du. ⇨ Boluntarioki atera beharko dira denak erdigunera. ⇨ Irakaslearen lana, inor ez ateratzekotan egoera dinamizatzea da. Baita hizkuntza edo gorputz ekintza ikuspegitik proposamenak osatzea edo zuzentzea.

KORAPILOA
Jokoa: ETXEKO LANAK
Iraupena: 8 minutu
⇨ Etxeko egoeren simulazioa eginen dugu, norbanakoan. Honako eskenak adierazi beharko dira: Lurra fregatu, erratza pasa, mahaia jarri eta kendu, arropa lixatu, arropa eskegi, josi, arropa tolestu, egongela txukundu... ⇨ Eskena hauek bikoteka eta hirukoteka antzeztera pasako gara. ⇨ Etxeko lan hauetan genero rolak ez erreproduzitzean arreta jarri beharko da. Hau irakaslearen ardura izanen da.
Jokoa: LANBIDEAK
Iraupena: 8 minutu
Deskribapena: ⇨ Talde handian. ⇨ Irakasleak lanbide ezberdinak esanen ditu. Esteriotipoak gainditzeko, lanbide feminizatu edo maskulinizatuak rolez aldatu beharko dira. ⇨ Keinuekin antzeztuko dituzte haurrek. ⇨ Irakasleak proposatu beharko du: Medikua izan nahi duenak, erdigunera atera eta zergatia azaldu beharko du. Horrela lanbide ezberdinekin.
AMAIERA
Jokoa: HITZ EGIN DEZAGUN
Iraupena: 7 minutu
Deskribapena: ⇨ Banan-banan nola sentitu diren azaldu beharko dute haurrek. Borobilean lurrean eserita. Zein zailtasun aurkitu duten eta zein jarduera den gehien gustatu zaiena..

3.4. BESTE PARKE ZORAGARRI BATZUK

Jada amaitu dituzue “El fantástico parque de Martina” ikuskizuna ikasgelan lantzeko dinamikak… oraingoz. Esperientzia itxitzat eman nahi ez baduzu eta gaiari buruzko irakurketa gehigarriak planteatu nahi badituzu, segi aurrera. Helburua da jarraitasuna eskaintzen duen lan-ildo bat eraikitzea eta lan-ildo hori ikasgelan ikasturtean zehar jorratuko diren edukiekin zeharkako moduan uztartzea.

Dinamikaren azalpena:

Materialak bilatu beharko dira (ikus-entzunekoak, egunkarietako zatiak, argazkiak, pertsonaia historikoak, etab.) fantasiazko munduen ingurukoak direnak. Ikasturtean zehar garatzeko planteamendu irekia da hau, material hauek pixkanaka bildu eta gure albumean gordetzen lagunduko diguna, artxibategi bat balitz bezala.

Eta azken proposamen honekin amaitutzat emango dugu unitate didaktikoa. Espero dugu zuk eta zure taldeak jarduerarekin gozatu izana eta esperientzia artistiko esanguratsu bat bizi izana.

Amaitzeko, zuen albuma Teatro Paraíso konpainiari helarazteko aukera ere baduzue Beñat Etxepare Antzerkiaren 25. edizio honetako ikusleei emandako sarietan parte hartzeko.

ESKERRIK ASKO.